# KANALIZAZIORIK EZ

Busturialdean egin nahi izan diren faraoi-lanak hainbat izan dira; 1970.ean Foru Aldundi frankotiarrak onarturiko Itsasadarraren probetxamendu planetik hasi, zeinek ondoriotzat ekarriko bait zuen padura guztien ondamendi osoa eta porlanez janztea eta asma berriago batzukin jarraituz, adibidez Kanpantxun egin nahi izan den Bat Formulareko pista edo Estropadaleku olinpikoa, edo artadietatik egin nahi izan den Artaaga-Laida Errepidea...

Eta orain, ohitura ez galtzeko edo, Gernikako Udalaren iniziatibaz eta Foru Aldundi eta M.O.P.U.ren laguntzaz, Muxikatik Muruetararteko kanalizazio (ubidegintza) erraldoi bat sartu nahi digute. Eta, honekin batera, Gernikako EAJ, EA eta PSOE, UNESCO-delakoak onarturiko "Biosferaren babesa"-deritzan erabakiaren kontra atera dira (1988.ko ekainak 28-ko Udal batzarrean).

Kanalizazio lan honek bi fase izango ditu, bata Gernikararte eta bestea Muruetan bukatu arte. Bere aurrekontua: 1.200 milioi pezetatakoa da. 8 kilometrotako luzera eta "escollera" delakoa deritzan harrizko horma duen kanala edo ubidea izango da. Bere zabalera 20-tik 40 metrorartekoa eta hiru zabortegi izango ditu: hauetariko batak ondorio legez ekarriko du Atxaga-Foruko sasakadi eta belardiz jantziriko lur hezeen lehorketa zein Foruko Udalak "erreserba Ekologikotzat" hartzen bait du bere arau osagarrietan eta gainera Oka hibaiaren adarrik nagusienen kanalizazioa ere ekarriko du (Olaeta, Urkieta, Mikiena, Barrekondo, Golako, ... hain zuzen ere).

Gure ostean etorriko diren gizaldientzat ere, bizirik mantendu nahi dugulako Itsasadarra, gaude proiektu honek itsasadarraren iraupena jartzen duelako arriskuan: itsaso edo paduren lehorketa, itsasertzeko ohienen deuseztapena, makinaria astunez egindako lur aldaketa izugarria, itsasadarreko abeldien eragin ikaragarria,...

Gure eskualdaren etorkizuna kontutan izanik egin nahi dugulako ordenamendu osoa eta egiazko plangintza, gaude proiektu edo egitamu honen kontra, zeren honek, aurrera eramango balitz, ekarriko lukeelako egin berri dauden lanen apurketa, esaterako, Golako errekan egin berri dagoen zubia, itsasadarreko ebakidurako mehaskata,...

Egiten diren lanak benetan arrazoituak izatea eta ekarriko dituen ondorioak ongi neurtuak egotea nahi dugulako, gaude proiektu edo egitamu honen kontra, zeren proiektu honek ez duelako inguruguneen izango duen eraginaren ikerketa sakon, zuhur eta independienterik.

Gure eskualdeko hazkuntza ekonomikoa bertako izakera eta balioekin bat etortzea nahi dugulako gaude proiektu edo egitamu honen kontra, zeren honek oraindino gehiago zabaltzen dizkiolako ateak espekulazioari eta errazta seinale baino ez dizkiolako ematen Gernika ingurutik egin nahi den errepideari.

Uholde eta urboladen arazoari egiazko erantzuna eman nahi diogulako, gaude proiektu edo egitamu honen kontra zeren honek ez duelako arazoaren begirada osorik, mugatua baino eta gainera gure eskualdeko trokarro edo sakanak behar duen aterabide orokorraren oso kontrakoa delako: baso politika egokiagoa (aldapa haundietan matarrasarik ez, bertoko zuhaitzen birlandatzea,...) eta arrazoizko lurralde ordenamendua.

Holako "gertaerak" behin betirako desager daitezen egiazko eta berehalako babestearen alde gaude gure "trokarro edo sakanaren babeste orokorraren plangintza" baten bidez, gure eskualdeko kultur ondarearen iraupena eta neurriko hazkuntza alkartuz. Eta babeste hau burutuezina den bitartean Busturialdeko ekosistemari bai haunditasuna ere itzulezinean ikutzen dioten lan garrantzitsu guztien geraldi zuhurra beharrezkotzat jotzen dugu.

Kanalizazio plan hau burutu ez dadin Herri Koordinaketa zabala sortu da, arazo hau bultzatu nahi duten pertsona eta talde guztiei irekia. Arrazoi guzti hauengatik bertan parte hartzeko eskatzen zaizue guztiei

Gernikako Ekologi Lan Taldea, Gernikako Eguzki, Bermeoko Eguzki,
Busturialdeko Herri Batasuna, F.F.F., L.K.I., Gernikako Gaztetxea,
......